

# Hamazazpi

2020ko abendua



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

- \_ BENGOLARRAKO ERABERRITZEA AURRERA DOA**
- \_ KALE ARGI BERRIAK, LED TEGNOLOGIAREKIN**
- \_ IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO GUNE BERRI BAT**
- \_ MAIRU ABESBATZAK LANEAN JARRAITZEN DU**
- \_ ZIZKIÑO, TXABOLA BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO**





## Hemen eta orain

- 04 Bengolarrak beste urrats bat eman du eraberritze prozesuan
- 06 280 kale argi berriak, LED teknologiarekin
- 07 Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune berri bat
- 08 Mairu abesbatzak lanean jarraitzen du
- 10 Zizkiño, txabola bat baino askoz gehiago

## Kolaborazioak

- 12 Zigoitiarrak. **Isidro Sáez de Urturi**ren eskutik
- 13 **Eguneko Arretarako Landa Zentro**ko berriak
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulure**kin

### Staff

## HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2020ko abendua.

**Azala:** Oscar Arraiz Ortiz de Urbina. Zigoitiko Argazki Lehiaketa

**Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_945 46 40 41 · [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) · [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

**Koordinazioa:** Rosa Ortiz de Mendivil

**Erredakzioa:** Mirian Biteri, Rosa Gerenabarrena  
**Diseinua eta maketazioa:** [www.hirudesign.com](http://www.hirudesign.com)  
**Imprimaketa:** [www.graficasirudi.es](http://www.graficasirudi.es)

**Ale kopurua:** 1.050 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08  
Aldizkari honetako testuak edota argazkiak koptatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:**  
[www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](https://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



## Gabonetako programa

Zuhurtasun eta ardura handiz, aurten ere Gabonetako programazioaz gozatu ahal izango dugu: Olentzero eta Mari Domingiren bisita, antzerkia, musika, poesia, ipuinak, tailerrak, zinema eta Gabonetako kontzertua. Zigoitiko Udalak, Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizue!

Info gehiagorako:  
Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan  
[www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus)  
945 46 44 00



*Zorionak eta urte berri on!*

*¡Feliz navidad y  
próspero año nuevo!*



**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**  
**ZIGOITIA 2020-21**  
**¡FELIZ NAVIDAD Y PROSPERO AÑO NUEVO!**

**ABENDUAK 18 DICIEMBRE**  
18:00 Mari Domingiren bisita / Visita de Mari Domingi  
Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan. Leku mugatuak.  
Centro sociocultural de Zigoitia. Plazas limitadas.

**ABENDUAK 19 DICIEMBRE**  
19:00 Antzerkia: "UNIKO" Teatro Paraiso  
Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan. Leku mugatuak.  
Publikoa: familiarra, 6 urtetik aurrera.  
Nagusiak: 5€  
Nagusiak haur batekin: 3€  
Hizkuntza: Euskara  
Centro sociocultural de Zigoitia. Plazas limitadas.  
Público familiar, a partir de 6 años.  
Adultos: 5€  
Adulto con niño/niña: 3€  
Idioma: Euskara

**ABENDUAK 23 DICIEMBRE**  
18:00 Musika, olerkia eta gaztainak / Música, poesía y castañas.  
Doctor Sax & Zigoitiko liburutegiaren eskutik.  
De la mano de Doctor Sax & Biblioteca de Zigoitia

**ABENDUAK 24 DICIEMBRE**  
18:00 Olentzerori ongi etorria. Bienvenida a Olentzero.  
Bengolarrako frontoian / Frontón de Bengolarra.

**ABENDUAK 28,29,30 DICIEMBRE**  
18:00 Ipuinak zuhaitzaren ondoan / Cuentos junto al árbol.  
Zigoitiko liburutegian / Biblioteca de Zigoitia  
Izen-ematea: Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan / Inscripción: Centro sociocultural de Zigoitia

**ABENDUAK 28,29,30 DICIEMBRE**  
18:00-21:00 Gazte tailerrak.  
Adinak: 12-15 urte / Edades: 12-15 años  
Izen-ematea: Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan / Inscripción: Centro sociocultural de Zigoitia

**ABENDUAK 28,29,30 DICIEMBRE / URTARRILAK 4,5 ENERO**  
10:00 - 13:00 Umeentzako gabon txokoak / Talleres navideños infantiles  
Adinak: 3-11 urte / Edades: 3-11 años  
Izen-ematea: Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan / Inscripción: Centro sociocultural de Zigoitia

**URTARRILAK 2 ENERO**  
12:00 Gabonetako emanaldia / Audición navideña  
**MAIRU abesbatza**  
Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan. Leku mugatuak, erreserbak 945 464400  
Centro sociocultural de Zigoitia. Plazas limitadas, reservas 945 464400

**URTARRILAK 4,5 ENERO**  
19:00 Gabon Zinema / Cine de Navidad  
Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan. Leku mugatuak, erreserbak 945 464400  
Centro sociocultural de Zigoitia. Plazas limitadas, reservas 945 464400

**INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN**  
945464400  
[www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus)

Zigoitiko gizarte eta kultur zentroan / Centro sociocultural de Zigoitia



## Bengolarrak beste urrats bat eman du eraberritze prozesuan

Herritarren partaidetzatik sortutako proiektuak ia bi milioi euroko aurrekontua du

Irudietan, proiektuaren ikuspegi ezberdinak. Infografiak: 'LAFUENTE SILVA ARQUITECTOS'.



Bengolarraren eraberritzea 2017an hasi zen Zigoitiko herritarren arteko parte-hartze prozesu batekin, eta aurreikusitako epeak betetzen jarraitzen du. Urriko udalbatzarrean oinarritzko proiektuari oniritzia eman zitzaion eta datorren urtearen hasieran exekuzio proiektuaren idazketa onartuko da. Lanak kontratatzeko espedientearen irekierarekin jarraituko du prozesuak, eta 2021eko irailean hasi eta 2023ko maiatzean amaituko dira obrak. Bengolarra berriaren irekiera 2023ko udan, hain zuzen ere, aurreikusita dago.

Udalaren aurreikuspenen arabera, lanak datorren urteko irailaren erdialdean hasiko dira. Ezustekorik ez badago, Bengolarrako gune berria 2023ko udaberri amaierarako amaituta egongo da. Hurrengo urratsa eraikina beharrezko ekipamenduz hornitzea izango da; beraz, Bengolarrako gune berriak urte horretako udarako atea irekiko dituela uste da. Horrela, birmoldaketa lanen ondorioz, 2022ko udako denboraldian baino ez dira igerilekuak itxi beharko. Bengolarra birmoldatzeko aurrekontua ia bi milioi eurokoa izango da, BEZa barne. Alberto Garcia Yela arkitektoaren aurreproiektuan oinarrituta, udalbatzak diru-laguntza eskatu du Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako, 2020-2021

deialdirako. Gainera, laguntzak eskatuko dira Eusko Jaurlaritzaren LEADER programaren bidez, landa-eremuko udalerrak sustatzeko, garatzeko eta dibertsifikatzeko, bai eta Energiaren Euskal Erakundeari (EEE) eta Arabako Foru Aldundiari ere, higiezinaren iraunkortasunari dagokionez.

### Proiektua aukeratzeko lehiaketa

Barbara Silva Gil-ek eta Ignacio Lafuente Saez-ek osatutako arkitekto taldeak "aterpean zehar" proposamenarekin irabazi zuen Bengolarra zaharberritzeko eta handitzeko lehiaketa, uztaileko osoko bilkurak berretsi zuenez, epaimahaiak proposamena egin ostean. Lehiaketara 24 proiektu aurkeztu ziren, eta ideien lehen fasean bost aukeratu ziren. Beste

lau zirriborroek 4.000 euroko saria lortu zuten. Bengolarrako eraikina gutxi gorabehera 1950ekoa da, eta 1.350 metro koadroko azalera eraikia du, eta eraberritzea integrala izango da. Aldagelen eremua handitzea, igerilekuetako taberna eraberritzea, erabilera anitzeko bi gela eraikitzea, oztopo arkitektonikoak kentzea eta energia aurrezteko indarrean dagoen araudia betetzea da helburua. "Espazio berri jasangarriagoa, modernoagoa, irekiagoa eta guztientzat irisgarriagoa" sortzea da asmoa. Beheko solairuko bainugelak eta aldagelak egokituko dira, eta irisgarritasuna igogailu batekin osatuko da. Lehenengo solairuan gimnasioa egiteko gela handi bat jarriko da, eta beste hainbat espazio ere bai, neurri eta erabilera desberdinekin. Bigarren solairuan etxebizitza soziala mantenduko da. Irudietan ikus daitezkeen bezala, proiektu irabazleak udal zerbitzuen ardatza erabilera anitzeko gelekina eta taberna-jatetxearekin lotzen du. "Atari bat eraikinaren hedadura gisa aurkezten da, espazio publikoa eratzen duena, beheko solairuaren kota bateratzen duena eta parkean jolasten diren haurren eta hara eta hona dabiltzan adineko pertsonen arteko harremana indartzeko kohesio sozialeko elementu bihurtzen dena". 'Lafuente Silva Arquitectos' taldeak material naturalen eta birziklatuen aldeko apustua egin du: hormigoia, altzairua, egurra eta beira. Proiektua aukeratzeko orduan, epaimahaia osatu duten lau profesionalak tokiarekin eta Bengolarra eraikinarekin duten integrazioa azpimarratu dute, parkearen protagonismoa berreskuratuz. "Gainazal goratu bat sortzen du, proposamen osoa bateratzen duena; arkupe praktikoa du, eraikina parketik eta alderantziz integratzeko aukera ematen duena, eta ipar-hego eta ekialde-mendebalde komunikazio-ardatzekiko loturak ebazten ditu". Bere iritziz, kalitatezko irudia planteatzen du, ingurunean integratua eta giza eskaladuna. Gainera, bere konplexutasunari irtenbide ona ematen diola uste dute. "Sarbideak, zirkulazioak, aldagelak eta erabilerak konpontzen ditu, igerilekutik eta kanpotik taberna irisgarri bat diseinatzen du, programa aberasten duen erabilera anitzeko gela bat proposatzen du, eta etxebizitza



irisgarri mantentzen du, baita erabilera independentearekin ere". Berdintasun teknikariak eta Ingurumen teknikariak ere parte hartu dute proiektuan, genero-ikuspegia eta jasangarritasun eta autosufizientzia energetikoaren irizpideak betetzen direla bermatzeko.



## Argiteria publikoa berrizteko proiektua

### 280 kale argi berri, LED teknologiadunak



1.200 kale argi daude udalerrri osoan.

Jasangarritasunaren bidean, herri guztietako lehengo sodio-lurrunezko kale argiak aldatzen ari da Zigoitiko Udala. Horien ordean, Led teknologiadun bonbillak jartzen ari dira. Aldaketak elektrizitate-kontsumoaren jaitsiera nabarmena ekarri du. Horren ondorioz, alde batetik, argiaren fakturan % 50a aurrezteko lortu da, eta, bestetik, berotegi-efektuko gasen (BEG-en) isuriak nabarmen murriztea.

Urteak daramatzate Zigoitiko Udalean energia kontsumo arduratsuen alde lan egiten. Horrekin lotuta, hainbat proiektu dituzte mahai gainean; tartean, udalerriko argiteria publikoa goitik behera aldatzearena dago. Faseka doan proiektua da eta, bukatzen denean, udalerrian dauden farola guztien (1.200 inguru) ordezkapena ekarriko du.

Lehen fasean, 2016 eta 2017 urteen artean egin zena, dena, 600 luminaria baino gehiago aldatu egin ziren. Hain zuzen ere, Ondategi, Gopegi, Larrinoa, Marga, Etxaguen, Akosta, Eribe, Berrikano, Mendarozketa, Etxebarri Ibiña eta Letona herrietako 150 eta 250 watt arteko potentzia zuten argiak ordezkatu ziren. Kasu gehienetan, herri guztiko luminariak aldatu ziren esku-hartze bakoitzean, zaharrenei lehentasuna emanez.

Orain, bigarren fasean dabilta. Kasu honetan, 280 luminaria ordezkatzeko ari dira Apodaka, Murua, Olano, Zestafe, San Pedro, Zaitegi, Buruaga eta Etxebarri Ibiña herrietan.

#### 50 watt inguru

2020an egikaritutakoaren esleipenaren aurrekontua 149.351,75 €ko, proiektua eta lanaren zuzendaritza barne; Udalak 119.549,91 €ko diru-laguntza jaso du Aldunditik eta 21.163,26 €ko EEETik (Energiaren Euskal Erakundea).

Ingurumen teknikari Jon Toñak azaldu du lehengo kale argiak sodio lurrunezkoak zirela, eta potentzia altua zutela, horrek zekarren kontsumo energetikoarekin eta eragindako gastu ekonomikoekin. "150 wateko potentzia zuten; eta lehen fasean aldatutako batzuk 250 watiokoak ere baziren. Oraingoek, berriz, 50 watt inguru dituzte. Diferentzia nabarmena dago bata eta bestearen artean", azpimarratu du. Energia "nabarmen" aurreztuko dela gaineratu du eta horren ondorioz, argindarraren fakturan batzuk beste % 50a aurrezteko lortzen da. "Gainera, energia-kontsumoak murrizteko ahalegina eta inbertsioa ekarpen garrantzitsuak dira berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, horiek baitira larrialdi klimatikoaren eragile nagusiak".

## Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune berri bat

Instalaturako dorreak 2 ibilgailu kargatzea ahalbidetzen du, 40 bat minutuz



Udaletxeko aparkalekuan jarri dute kargalekua.

Ibilgailu hibrido entxufagarriak edo elektrikoak dituztenek kargatzeko gune berria izango dute eskura urtea amaitu baino lehen. Zigoitiko Udalak Bengolarrako aparkalekuan jarri du 2 auto aldi berean kargatzeko dorre bat. Proiektuaren inbertsioa 13.604'73 €koa izan da.

Energiak berriztagarrien erabilera bultzatzeko saiakeran pausu berria eman du Zigoitiko Udalak. Kasu honetan, ibilgailuei eragiten die, Bengolarrako aparkalekuan auto hibridoak eta elektrikoak kargatzeko puntua jarri berri delako. Ingurumen teknikari Jon Toñak azaldu du azken ukituekin dabilzala orain. "Datozen asteetan martxan jartzea espero da. Oraingoan, doakoa izango da, baina asmoa tasa bat ezartzea da, onartu eta 2021eko ordenantza berriaren argitaratu beharko dena. Erabili ahal izateko, edozein kargalekurekin gertatzen den bezala, alta eman beharko da zerbitzua kudeatzen duen plataforman".

2019an jarri zuen mahai gainean Zigoitiko Udalak ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua jartzearen proiektua. Arabako Foru Aldundiaren jasagarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko diru laguntza deialdira aurkeztu zuen, eta 2020an egitasmoa garatu ahal izateko dirua jaso zuen.

Pandemia dela eta, obrak denboran batez atzeratu behar izan ziren. Azkenean, uztailan hasi ziren gunea egokitzeko lanekin. Kargatzeko dorrea koadro elektrikoarekin lotu ahal izateko obrak egin zituzten lehenengo, eta jarraian, karga erdi-azkarreko puntua jarri. Ibilgailu motak eta bestelakoak kargatze denboran eragina

badute ere, Ingurumen teknikariak azaldu du 40 bat minutu beharko direla ibilgailua osorik kargatzeko.

Toñak azaldu du bi helburu nagusi dituela proiektuak: alde batetik, energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, ohiko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuak elektrikoekin ordezkatzeko lan eginez. Bestetik, udal ibilgailuak berrizteko momentua iristen denean (daudenak zaharkituak geratzen direnean, alegia), ibilgailu elektrikoentzat beharrezkoa den kargatzeko azpiegitura prest izatea. Izan ere, irizpidea ohiko errekontza-motorea duten ibilgailuak, motore elektrikoak duten ibilgailuekin ordezkatzeko izango baita.

#### 15 ibilgailu elektriko edo hibrido Zigoitian

Zigoitiko udalerrian, gaur egun, 1.817 ibilgailuk dute izena emanda; horietatik 15 dira elektrikoak edo hibridoak. Azpimarratzekoa da zergak eta tasak arautzen dituen udal-ordenantzak gutxiago kutsatzen duten ibilgailu horiei hobariak aplikatzen dizkiela Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergan.



## Mairu abesbatzak lanean jarraitzen du

Zigoitiko abesbatza ez du pandemiak gelditu. Aitzitik, itsasoaren beste aldean ere jardun du, eta belarria gehiago findu behar izan du.



Testuak eta argazkiak: **Mairu Abesbatza**.

COVID 19aren pandemiak herritar guztiak behartu gaitu ohiturak aldatzera, baina, modu batera edo bestera, guztiok bilatu dugu gure zaletasunei jarraipena emateko modua. Mairu abesbatzan ez da inoiz utzi musikarekin kontaktua, baina egoerak eskatzen duen moduan moldatu behar izan dira. Adibidez, ahots teknikekin jarraitu dute (arnasketa, etab.) Aliona Makeeva zuzendariak bidalitako bideoen bidez.

Osasun agintariek ezarritako araudia dela eta, Mairu Abesbatzak parte hartzeko asmoa zuen ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira. Baina beste era batera ikusi eta entzun ahal izan gaituzte. Denbora horretan zehar, bi bideo grabatu ditugu, koralista bakoitzak bere etxetik bakarka abesten zuen berezitasunarekin, eta horrek ahalegin handia ekarri die zuzendariei, abesbatzako kideei, informatika, soinu eta grabazio-teknikariei (horiek guztiak koralistak edo familiarak dira, eta lan horien zaleak ere bai). Ekainaren amaieran, 'Normaltasun berria' deiturikoan, aurrez aurreko entseguei ekin genien berriro. Eskatutako urrutze neurriak betetzen zituen beste tokirik ez zegoenez, Letona eta Ondategiko elizetan egitea erabaki zen. Bide batez, eskerrak ematen dizkiegu bi herrietako Administrazio

Batzarrei, adierazi zuten jarrera onagatik. Era berean, 'Isiluneak bakardadean' ekimenean parte hartu genuen, 'Vivir con Voz Propia' elkarteak bultzatuta, bakarrik geratu ziren, bakardadean joan ziren edo euren presentziarik gabe utzi gintuzten pertsonak gogoratzeko. Gasteizko Urkanta Abesbatza abesbatzarekin batera, udan, abuztuaren 1ean, kontzertu txiki bat eskaini genuen Bengolarra parkean.

**“Isiltasuna finduz, edertasunez bete ditzagun airea, ingurunea, bizi dugun bizitza”**

Eta irailetik aurrera entseguei ekin genien berriro. Oraingoan, berriz ere, segurtasun-distantzia gordetzeko betebeharragatik, Gizarte eta Kultura Etxeko ekitaldi-aretoa

erabiltzea erabaki genuen, zentroaren beraren eta Zigoitiko Udalaren laguntzarekin. Hona hemen gure esker ona entsegu-leku berri hau errazteko erakutsi zenuten jarrera onagatik. Era berean, irailean Zigoitia Euskaraz-en bideoaren grabazioan parte hartu genuen. Eta urrian, EMIk gonbidatuta (Boliviako Santa Cruz Unibertsitatea), Nazioarteko I. Abesbatza Jaialdi Birtualean parte hartu genuen.

### Erantzukizunez

Ikus dezakezuen bezala, Mairu Abesbatzak lanean jarraitzen du. Musika gure bizitzaren parte da eta arima bizirik mantentzen digu. Egoerak eskatzen duen erantzukizunarekin lan egiten dugu beti, maskara batekin kantatuz eta koralisten arteko segurtasun-distantzia gordez. Ez da erraza, baina belarria zorrotzu behar izan dugu, lankideei entzuteko. Mairu Abesbatzaren izenean, gure abesbatzan parte hartzera animatzen zaituztegu. Abestea gustatzen bazaizu, zatoz! Une dibertigarri eta hunkigarriez gozatuko duzu. Anima zaitetz! Harrapatu! Saiatu! Ostegunetan entseatzen dugu, arratsaldeko zazpizatetik bederatzietara. Eta astelehenetan ahots teknikako eskolak jasotzen ditugu. Harremanetan jartzeko, idatzi mezu bat [mairuabesbatza@gmail.com](mailto:mairuabesbatza@gmail.com) helbidera.



**“Kantatzeak bizirik sentiarazten gaitu, zoriotsu. Kantatzen dugun bitartean beldurrak, minak eta kezak baztertzen ditugu”**

### Aliona Makeeva, zuzendaria

“Nire ustez, koruak mistizismo moduko bat adierazten du, airea da, eta hori gabe bizitzea ezinezkoa da. Gizateriak beti izan du kantatzeko beharra emozioak eguneroko bizitzako hitz prosaiko batean baino biziago azalarazteko. Pertsonak elkarrekin abesten dutenean, hegoak hazten zaizkie eta beren hitz kantatua ariman sartzen da, erlaxazio eta arrakasta komunaren pozezko saio bat da. Koruan pasatzen dugun denbora ez da bizitarako kontuan hartzen, koru batean abesten duten pertsona guztiak, beren erara, ehun urtekoak direla uste dut. Beti pentsatzen dugu: nola luzatu gure bizitzak? Erantzuna oso sinplea da: zoaz abesbatzara abestera! Antzinako greziarrek pertsona bati



buruz esan nahi bazuten baldarra eta mugatua zela, esaten zuten: “Erabateko akorala da!, hau da, ezin du koru batean abestu. Kantu koralak nazioak hurbiltzen ditu, pandemiaren gainetik. Bizitza zein ederraden gogorarazten diguna kantu korala da”.



## Zizkiño, txabola bat baino askoz gehiago

Testuak eta argazkiak: **Abadelaueta Elkarte Etnografikoa.**



Zizkiño txabola, zaharberri ondoren.

Zizkiño txabolaz hitz egitea, Julian Lecue Armendariz 'El Pipas' ezizenez ezaguna eta bere semea, Antonio, gogoratzea da. Julianek (1885-1968), Ubiden jaiok, bizitza osoa eman zuen artzaintzan, bere seme bakarrak, Antoniok (1919-1981), bezala. Urtaoen arabera, Zizkiño, Egillolarra eta Las Neveras artean bizi izan ziren.

Julianen bizitza bere ardiak zaintzen dituen artzain saga batean kokatu behar da. Apirilaren 15etik aurrera, bere ibilbideari ekiten zion artalderako larre hobereen bila, baserriko lanak alde batera utziz. Horiek, bere emazte Gumersinda Iburguchi Agirrerren ardurapean geratzen ziren, senar-emazteen 5 alaben laguntzarekin. Astegunetan, Julianek alabaren baten bisita jasotzen zuen, eta asto batek lagunduta, janariak eramaten zizkion neskak. Alabaren itzulerako bidaia mendian egindako produktuak jaisteko aprobetxatzen zen (gaztak). Julianek asteburua erabiltzen zuen baserrira jaisteko, ondo garbitzeko eta mezetara joateko. Igandean, bazkalostean, mendira buelta ardiekin, eta horrela bizitza osoan.


### Bidegurutzea

Antoniok aitaren adibidea jarraitu zuen, nahiz eta altueran egiten zuen bitzitza dezente murriztu zen, lanen zati bat jada baserrian egiten baitzen, eta ez mendian. Bi gizonen artzaintzarako aukeratu zituzten naturguneak edertasun paregabeak dira, larreetan aberatsak, bide-bidegurutze benetakoak, non edozein bisitarik solasaldi luze bat eta ardo trago bat aurki zitzakeen. 'El Pipas' eta bere seme Antoniori, eta historia den bizimodu horri omenaldi gisa, energiaren eta magiaz betetako leku kutun hauetan, joan den udan, Zizkiño txabola zaharberritzen lan egin zuen Abadelaueta Elkarte Etnografikoa, Buru Belarri Bioeraikuntza S.C. enpresaren laguntzarekin



Zizkiño txabola zaharberri aurretik.

eta Zigoitiko Udalaren finantzazioarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu errehabilitazioan horiengatik jaso ditugun aintzatespenadierazpenengatik, eta horietan parte hartu duten pertsona guztiei helarazi nahi dizkiegu. Eta oraindik ezagutzen ez duzuenok, Zizkiño txabola bisitatzerantz animatzen zaituztegu.



### Zizkiñorako ibilbidea Gorostizatik

Zizkiño, Siskiña, Zizkiño Gorbearen itzalean dagoen mendi txiki baten izenetako batzuk dira; mendi txiki dugu, baina oso aberatsa historia aldetik eta inguruko herrien bizimodu tradizionalaren arrastoen ikuspegitik. Besteak beste, artikulu honetan aipatzen dizugun txabola dago bertan. Abadelaueta Elkarte Etnografikoa diseinatutako ibilbide bat jarraituz bisitatu dezakezu. 9,5 kilometroko ibilbidea da, Gorostizatik abiatuta, eta 882 metroko altuera du gehienez. Ibilbide honek garapen erraza du eta Zigoititik Otxandiorako bide zaharren zati bat zeharkatzen du. Ikusi ibilbide osoa esteka honen bidez:

<https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/zizkiño-32880541#wp-32880542>



Julian Lecue Armendariz, 'El Pipas'. Bere familiak utzitako argazkia.



Isidro Saenz de Urturiren eskutik

## Futbola gerra osteko Zigoitian

Eskola bat eta mutil batzuk zeuden herrietan futboleko jokatzeko zelaia zuten. Apodakak, Etxabarri-Ibiñak eta Ondategik jokatzeko zelaia zuten; Apodakak, Kontzejila; Etxabarri-Ibiñak, San Andres; eta Ondategik, Becolarra, denetan lauena zena. Futbol-zelairik gabeko herri batzuek bertan ere jokatzeko zelaia zuten. 1945ean, herrien artean lehiatzen hasi ziren, ostegun arratsaldetan; eskola-umeen arteko partidak ziren, harrira amaitzen zirenak eta, batek baino gehiagok, buruan txitxoi batekin bukatzen zuten. Baloia 'Educación y descanso'\* elkarteak oparitzen zuen. Urte horretatik aurrera, helduenekin liga bat jokatzeko hasi ziren. Txapeldunak Ondategikoak ziren, oso atezain ona baitzuten. Goiko herriek jolastu behar zutenean, kamioiarekin joaten zen Santi Larrea; gauza bera Apodakakoei edo Etxabarri-Ibiñakoei tokatzen zitzaizkion. Taula batzuk jartzen zituzten kamioiaren ohean, banku gisa, eta batzuk eseri egiten ziren eta beste batzuk zutik. Ubaldi aldapan gora zihoazenean, abiadura aldatzen zenean, gehienak bankutik irteten ziren. Zelaiari dagokionez, porteriak bi makila eta soka bat ziren. Becolarraoan langak egurrezkoak ziren eta partida batean halako baloikada eman zioten, langa atezainaren buru gainera erori zela. Zelai horrek, bide batez, jokalariek inpartzial bat zuen: zelai barruan zegoen haritz bat. Urte batean ligaxka bat jokatu zen Lautadako zenbait herriren artean. Azken partida



Argazkia: James Lee, Unsplash.

Tresponden jokatu zen, Zigoitiaren aurka. Trespondekoak izan ziren txapeldun. Santik topera eramanean zuen kamioia, jokalariek eta animatzaileen artean. Trespondeko jokalariek 'El Negro' ezizena zuen jokalariek on bat zuten; Alavesek ere fitxatu zuena. Baina probatu zuten egunean, uhalarekin egindako baloikada batek zulo bat egin zion buruan; zazpi puntu eman zizkieten, eta ez zuen gehiago jokatu.

(\*: 'Educación y descanso' Sindikatu bertikalaren menpeko erakundea izan zen, eta azken hau Francoren diktaduran, 1940 eta 1977 artean Espainian egon zen sindikatu bakarra).

### ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek.'

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen Zigoitiarrak saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrotik, EALZtik, informazioa

## Nola bizi gara Koronabirusarekin?



KORONABIRUSA gure inguruan dabil, martxotik. Eta gure bizitzak aldatzen ari da, nahi ez badugu ere. Osasun-faktoreari - positiboa ematen badugu eta berrogeialdia gorde behar badugu, edo gauza konplikatu egiten bada-, gure egunerokotasunean eta jokatzeko moduan 'eragiten' digun gai emozionala gehitzen zaio. Zigoitiko EALZko adinekoren taldeak, 'arriku handikoa' deritzogun taldeak, asko dugu esateko eta, gainera, pandemia horri nola aurre egiten ari garen jakinaraztea gustatuko litzaiguke. Galdera asko egin ditugu, eta horiei erantzuna bilatzen ari gara.

**Nola igaro ditugu konfinamendu egun hauek?** Ez dugu oso gaizki pasa (Casilda). Herri txiki batean bizitzeak baditu bere abantailak eta pixka bat askeago sentitu naiz (M<sup>a</sup> Carmen). Nahi dudana aldiro kalera atera ezinaren sentazioarekin gaizki pasa dut (Antonio). Askoz hobeto herrian hirian baino. Etxeko sarrerako bankura irten nintekeen eta eguzkiak gorputzean nabaritu (Margari).

**Horrelako egoerarik bizi izan dugu inoiz?** Inoiz ez dugu horrelako egoerarik bizi izan (Casilda). Gripe batekin 4 egunez zeunden etxean, baina gaixorik zeundelako. Orain etxean geratu behar, gaixotasuna prebenitzeko. Zer kontraesana! (Antonio). Orain bezala, ez gara inoiz izan (Eugenia). Gerran oso gaizki pasatu genuen: gosea eta beldurra zeuden, baina elkartasun handia zegoen gutxiago zutenekin edo ez zeukatenekin. Orain, bakoitza berera doa (Doroteo).

**Nola sentitzen gara egoera berri honetan?** Gero eta hurbilago sentitzen dugu 'zomorroa'

(Mari). Oso luzea izaten ari da. Gogaituta gaude. Nazkatuta egon arren, oso ondo portatzen ari gara (José Ignacio). Gero eta beldur handiagoa, albisteek gehiago baldintzatzen gaituzte beldurrera (Margari). Zaila da azaltzen. Mundu guztiari eragiten dion zerbait da, ulermenari ihes egiten diona (Antonio). Sentimendu nagusia etsipena eta agoantea dira. Baita haserrea ere errespetatzen ez duten pertsonen aurrean, eta gainera besteek ordaintzen dugu (José Ignacio, Casilda). EALZaren babesa sentitu dugu. Beren telefono deiek lagunduago eta hobeto sentiarazten zintuen (Teresa).

### Zer dugu faltan?

Poza, besarkadak, karta partidak, boloak, dantzak... Gure ustez, itzultzen denbora egingo duten gizarte-harremanak (guztiok). Beldurrik ez izatea (guztiok)

Hau da esan nahi genuena. Eskerrik asko entzuteagatik.

**Zigoitiko EALZaren erabiltzaileak**

## Zubi argidunen egilea

Testuak eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**



Argazkia: **Pilar Pérez de Óbanos**.

Roberto Bolañok, bere 2006ko *Entre paréntesis* lanean honela dio: "Amerikako bankurik babestuen eraso beharko banu, nire bandan poetak baino ez lirakeke egongo. Lapurreta, seguru asko, zorigaitzez amaituko zen, baina ederra izango zen". Ez genuen lehen bezainbeste elkar ikusten. Hori gauza arrunta da liburutegian: seme-alabak hazi egiten dira eta bisitak atzeratzen doaz. Azken aldian, obrako arroparekin agertzen zen beti: mahoizko galtzak igeltsu arrastoekin, txaleko urdin lodi bat eta azpian kamiseta bat. Atea zabaltzeko erabiltzen zuen irribarre okertuarekin halako herabetasun bat ezkututzen saiatzen zen, eta, aldi berean, hura azpimarratu, baimena eskatu edo azkenaldiko bihurrikeria batengatik barkamena eskatzen zuela zirudien, berak bakarrik zekiena. Txikitako zerbait zuen, helduaroak batzuetan ezabatzen

ez dituen aztarnak, eta zahartzen goazen heinean gero eta gehiago agertzen dira, benetako estilo-ezaugarriak. Haren presentzia argitsuak berehala hartzen zuen gorputza hartz baten besarkadan, hatzaparrak tolestuta, gozo, ezta gainezka zuela, nahiz eta badakidan hartz zaharrak oraindik basapiztiaren zati bat gordetzen zuela, hura saihestezina zenerako. Beti galdetzen zidan zer moduz zeuden gauzak, jakin nahi zuen ea 'chiguitas eta chiguitos' liburuez gozatzen ote zuten, arreta eta seriotasun handiz kontatzen nizkion irakurketa-abentura guztiak bizi zituen, ia hil ala biziko kontu bat bezala. Ume batek Jack London edo Salgari hartzen zituela entzutean, aurpegia argitzen zitzaion. Berak, laster, irakurketaren sukarrak jota, zerbait suspertzen ari zela ikusten zuen, eta Bihurri Zentzakitzen Bandarako kide berri bat irabazten ari zela sentitzen zuen.

## Etzegilea

Gizon batzuek etxeak eraikitzen dituzte beren eskuekin. Ez dira oso ohikoak, baina egon badaude. Haietako bat zen. 90eko hamarkadaren hasieran gaude. Lau urte eta erdi egin ditu kartzelan, hamabost etxetik kanpo. Hiri zaharrera itzulita, kale berriak ezagutu ere ez ditu egiten, eta garai batean baratzeetako putzuetan zapaburuaren burbuilak ikusten zituen puntu berean gal liteke; izan ere, orain, leku horretan bertan, zapaburuaren errepideen labirinto batean eta bizileku berrietan mututu da, zementuaren industriaren musu pozoituaren beroan. Burbuila mota ezberdinak. Beharbada une horretan bertan onartu zuen, ipuinetan gertatzen den bezala, guztiak duela eraldatzeko gaitasun misteriosua, eta horregatik berak ere etxeak eraikiko zituela, baina horiek ezberdinak izango zirela. Hitz egin genuen lehen aldi batean galdetu zidan: "zuk zementuzko txapela jantziko zenuke? Horra hor aldea". Emakume eder bat ezagutzen du, erakunde usaina duen oro gorrotatzen duena. Bera libre da. Dena bete du, bere diploma du, irakasle izan daiteke, haurrei irakats diezazkieke irakurketaren ibai ezutuak, misteriosuak eta erabat bizirik daudenak, seminarioko oheen eta gelaxka ezberdinen azpiko kandela baten argitan ikasi zuena, baina interes handiagoa du egurrean, buztinean eta aire zabalean arnasten duten harrietan, hiri idealaren planoentzaduran baino. Beraz, bere askatasunaren zati handi bat bere eskuekin etxeak altxatzea izango dela erabaki du, eta horretan erraldoi mitiko baten zerbait dago. Bere etxearekin hasten du lana. Hasieran ez du ideiarik ere nola egin. Eskuz esku ikasten du maite duen emakumearekin, anaiarekin, lagun batzuekin. Hiru urteko lanak lezio askotarako ematen du. Gogoratzen dut pozez kontatzen nola egin daitezkeen tinak edo zoruak kupelak baztertuta erabiliz. Berrito: eraldaketa. Aldea. Bukatzean pentsatzen du zergatik besteek ez duten gauza bera egiten. Ez du nahikoa izan. Ekin lanari, beraz. Behin batzuk altxatzen amaitu duenean, edo, hobeto, eraikitzen ari denean, konturatzen da garrantzitsua dela ere haien artean zubiak eraikitzea. Ba al du zentzurik etxe inkomunikatuen, gotorlekuen eta putzu itsuen artean bizitzeak? Hori bai, oraingoan



Argazkia: **Evgeni Tcherkasski en Unsplash**.

eraikiko dituen zubiek funtsezko propietate bat aldatu dute: ez daude harriz, egurrez edo buztinez eginak. Ez dira ikusezinak, baina orain haien materiala GIZATIARRA da. Berrito, dena eraldatzen da. Berrito: aldea. Ezagutzen dutenek badakite bere proiektuen izaera sutsua, baina horretarakougar iraunkor eta erregaitza gordetzen du. Orduan ezagutzen dut nik: benetako zubi-egilea.

## Ilargiko harrobia

Beraz, lagun maitea, utzidazu galdetzen, nondik dator horretarako gogoak? Nondik hainbeste adreilu? Gordetzen al duzu harrobi ezutu bat Ilargian? Agian, libre, erabat aske, ausarki aske eta zuzenezina zarelako, gaitasuna izango duzu aitortzeko hobe dela sutan dagoen zubi bat izatea, igarobiderik gabeko zubi ateporal bat izatea baino. Behar izanez gero, erre zure denborarekin. Nahiago nuke jakinaraziko bazenit, batzuetan mundutik jaisteko gogoak izaten dit. Amaitzeko, Bolañok: "Europako bankurik zainduena erasotu beharko banu eta gaiztakerietako nire kideak libreki aukeratu ahal izango banitu, zalantzarik gabe, bost poetaren talde bat aukeratu nuke. Benetako bost poeta, apolineoak edo dionisiakoak, berdin dio, baina egiazkoak; hau da, poeten patuarekin eta poeten bizitzarekin. Munduan ez dago inor haien baino ausartagorik. Munduan ez dago inor hondamendiari duintasun eta argitasun handiagoz aurre egiten dionik. Itxuraz, ahulak dira, baina hauskortasuna engainagarria da".



## 2020ko Zigoitia Euskaraz bideoan!

Koronabirusaren krisiak eraginda, egun bakar batean egin ziren Zigoitia Euskaraz antolatutako jarduera guztiak, irailaren 12an. Pandemiaren gaitetik, festa ederra egon zen.

Horren testigantza, antolatzaileek grabatutako bideoa. Ondorengo estekan ikusgai: <https://youtu.be/49P42ruuCF0>



### Autobusen ordutegia

**1 ZIGOITIA - VITORIA- GASTEIZ**

ZESTAFE	ACOSTA/OKIZITA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ETXABARRI/IBERIA	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURIJAGA	BERRIKANO	APODACA	ETXABARRI/IBERIA	ETXABARRI/IBERIA (IMG Gorbela CC)	VITORIA/GASTEIZ (Gorbela - Estancos)
ASTELEHENETIK OSTRALERA LANEGUNTAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
*	*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	07:03	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	08:33	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	10:03	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	*	14:45	14:48	14:50	*	14:53	14:56	14:58	14:59	15:03	15:10	15:12	15:21
*	*	*	16:15	16:18	16:20	*	16:23	16:26	16:28	16:29	16:33	16:40	16:42	16:51
*	*	*	20:50	20:53	20:55	*	20:58	21:01	21:03	21:04	21:08	21:15	21:17	21:26
							22:10					22:19	22:21	22:30
LARUNBAT, IRANDE ETA JAIEGUNTAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
*	*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	10:08	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	16:08	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	22:13	22:14	22:18	22:26	22:27	22:36

**1 VITORIA- GASTEIZ - ZIGOITIA**

VITORIA/GASTEIZ (Gorbela - Estancos)	ETXABARRI/IBERIA (IMG Gorbela CC)	ETXABARRI/IBERIA	APODACA	BERRIKANO	BURIJAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXABARRI/IBERIA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ACOSTA/OKIZITA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTRALERA (ANEGUNTAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*	*
14:00	14:09	14:11	*	*	*	*	14:28	*	14:31	14:33	14:36	*	*	*
15:30	15:39	15:41	*	*	*	*	15:58	*	16:01	16:03	16:06	*	*	*
20:10	20:19	20:21	*	*	*	*	20:38	*	20:41	20:43	20:46	*	*	*
21:30	21:39	21:41	*	*	*	*	21:58	*	*	*	*	*	*	*
LARUNBAT, IRANDE ETA JAIEGUNTAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*	*

**\* HURBILTZEA / ACERCAMIENTO**

Jatorriko ordutegiak izan ezik, gainerako gertaletan dauden ordutegiak guzti gorbekharakoak dira. Las horas de paso por las paradas, salvo lo de arriba, son aproximadas.